



07 AZAROA

- Osteguna **01**
- Ostirala **02**
- Larunbata **03**
- Igandea **04**
- Astelehena **05**
- Asteartea **06**
- Asteazkena **07**
- Osteguna **08**
- Ostirala **09**
- Larunbata **10**
- Igandea **11**
- Astelehena **12**
- Asteartea **13**
- Asteazkena **14**
- Osteguna **15**
- Ostirala **16**
- Larunbata **17**
- Igandea **18**
- Astelehena **19**
- Asteartea **20**
- Asteazkena **21**
- Osteguna **22**

- Ostirala **30**
- Osteguna **29**
- Asteazkena **28**
- Asteartea **27**
- Astelehena **26**
- Igandea **25**
- Larunbata **24**
- Ostirala **23**






EUSKARA ORDENAGAILUAN ERABILTZEKO TRESNAK UGARITZEN

Teknologia berrietan euskararen erabilera erraztu eta sustatzeko tresna ugari eskaintzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere web gunean. Bertan, atal berezi dugu ordenagailuan euskara erabiltzeko tresnak eskuratzeko edota kontsultatzeko.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruak euskararen normalizatorako duen garrantziaz jabeturik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) aspaldi hasi zen, euskaraz lan egin ahal izateko, hainbat tresna Interneten erabiltzaileen eskura jartzen. Sarean, www.euskara.euskadi.net da tresna horiek doan kontsultatzeko edota deskargatzeko helbidea.

Ordenagailuaren oinarriko softwarea euskaraz dago, oso erraz eskuratzeko moduan: Windows eta Linux sistema eragileak, eta Microsoft-en Office 2003 eta kode irekiko OpenOffice.org ofimatika-paketeak. Oraitxe, Windows Vistaren eta Office 2007ren interfazeen euskarazko bertsioak ari da prestatzen Microsoft. HPSk bermatuko du euskarazko bertsioaren hizkuntza-kalitatea.

Zuzentzaile ortografikoari dagokionez, Xuxen zuzentzaile ortografikoaren lehen bertsioaz gero, beste hainbat etorri dira. Xuxen III da azkena eta bidean da Xuxen IV ere. Zuzentzailearen bertsio berria lezioa handituko da eta gramatika eta estiloa zuzentzeko hainbat funtzio ere integratuko dira. Kode irekiko zuzentzaile ortografikoa ere garatuta dago, OpenOffice.org-en funtzionatzen du eta doan eskuratu daiteke sarean.



Hiztegiak ere laguntza handikoak dira. Bi modutara erabil daitezke ordenagailuan: on-line kontsultatuz edo plugina gure testu-prozesatzailearen barruan integratuz. Euskara web gunean on-line kontsultatu daitezke euskararen hiztegiarik garrantzitsuenak: Elhuyar hiztegiaren edizio berria, Hiru mila hiztegia, Hauta Lanerako Euskal Hiztegia, Harluxet Hiztegi entziklopedikoa, Sinonimoen eta antonimoen hiztegia eta Morris hiztegia. Gainera, hiru hiztegiaren plugin-ak daude eskuragarri www.euskara.euskadi.net web gunean: Elhuyar hiztegiak (euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa) eta UZElren Sinonimoen hiztegia.

Terminologia berezitua behar izanez gero, berriz, "Euskalterm" Terminologia Banku Publikoa kontsultatu behar da: www.euskadi.net/euskalterm.

Interneten nabigatzeko tresnak (Internet Explorer, Firefox...) eta posta elektronikoko aplikazioak ere euskaraz daude; Windows nahiz Linux sistema eragileekin batera eskuratu dira.

HPSren web gunean Miatu Erraz izeneko bilaketa liburutegia aurkituko dute web garatzaileek, euskarazko bilaketak errazteko.

Beraz, egun, euskarazko tresna eta software asko dugu euskaraz erabilgarri. Hemen aipatutakoak eta gainerako agente teknologikoez garatutakoak euskarazko IKTen Inbentarioan daude jasota eta kontsultagai www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa helbidean. Inbentarioari esker, euskaldunok uneoro dugu aukera euskaraz zein baliabide teknologiko dauden jakiteko eta non eskuratu daitezkeen.

MINTZAPRAKTIKA EGITASMO BERRIAK

Mintzalagun, berbalagun, solaskide... ohiko hitzak zaizkigu azken urteetan. Euskara dakienak hitz egiteko trebeziarik eta erraztasunik ez duenari laguntzeko saioa. Ikasturtea hasi berritan, HPSren eta Topagunearen arteko hitzarmen baten albiste izan dugu, euskararen erabilerari are bul-tzada handiagoa ematea da helburu.

Topaguneak Mintzapraktika egitasmoetarako duen arduraduna da Iker Martinez de Lagos. Programa zertan den azaldu digu lehenengo, eta aruten izango dituen berrikuntzak zehaztu, ondoren.

Mintzalagun nahiz berbalagunek ekin diote ikasturteari.

Bai. Mintzapraktika egitasmoetan hasi da ikasturtea. Berbalagun, mintzala-gun edo solaskide –nahi duzun bezala esan–, diren guztiak martxan dira.

Aurreko urteetan bezala, alegia.

Bai, horretan ez da nobedaderik. Ikasturte honetan ere, hainbat lagun talde batuko dira, Euskal Herri osoan, astero-astero, gustuko dituzten jardueren inguruan euskaraz aritzeko. Batzuk parkean, beste batzuk herriko plazan, tabernetan, kiraldegietan edota txokoetan bilduko dira, euskaraz jarduteko edozertan.

Mintzapraktika egitasmoak indartzen ari dira azkenaldion...

Bai, eta esango dut zergatik. Erakunde arteko elkarlana aspaldikoa da mintzapraktika egitasmoen inguruan. Alegia, horrelako egitasmoak martxan dauden herri eta eskualdeetan ohikoa da euskara elkarte, euskaltegi eta herriko bestelako zenbait erakunderen arteko elkarlana. Azken urteotan, herrian herriko ekimenez gain, herri artekoak ere sortu dira. Sendotu ere bai, zenbait. Esate baterako, azken urteotan sortutako zenbait ekimen: Berbarri hitzarmena, Mintzaeguna (bi urtez antolatu dena), herri ezberdinetako 2005ean antolatutako jardunaldiak eta beste zenbait.



Lea-Artibaliko Berbalaguna egitasmoa arduradunak euskaldun zahar eta euskaldun berri batekin

Aurten egitasmoa are gehiago indartzeko asmoa duzue...

Horretan gaude. Eusko Jaurizaritako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Topagunearen arteko hitzarmena dago oinarrian. Horrek bi berrikuntza nagusi ekarriko ditu gure egitasmorara. Batetik, Mintzapraktika marka sortu dugu.

Irudi berri eta bateratuarekin agertuko dira hemendik aurrera euskara elkarte, euskaltegi, bestelako gizarte erakunde eta erakunde publikoen artean antolatzen diren egitasmo bateratuak. Bestetik, Mintzapraktika.org gunea. Mintzapraktika egitasmoetako partaideen bilgune izateko sortu den tresna berria da.

Lehenaz gainera, bigarrena zaigu deigarria: Mintzapraktika.org. Zein helbururekin sortu da gunea?

Mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten kide guztien bilgune izateko helburuarekin. Informazioaren bilgune izango da. Euskara erabiltzeko gune berri bat eskaintzea da gunearen helburua.

Zer eskainiko du gune berriak?

Hainbat gauza. Batetik, informazioa bera: egitasmoak zein diren, nola funtzionatzen duten, beraien historia... Bestetik, argibideak: Euskal Herrian zehar dauden egitasmoetan parte hartzeko interesa duten lagunei proiektuetara hurbiltzeko behar duten informazioa eskainiko zaie, hau da, harremanetarako bidea. Gainera, berrien atala izango da, non tokian tokiko egitasmoetan edo mintzapraktika egitasmoen inguruan sortzen diren albiste, erreportaje, bideo eta argazkiak erakutsiko diren.



Nola hartuko du parte web gune horretan delako mintzalagun edo berbalagunak?

Era askotara. Aukera bat baino gehiago ematen du guneak: foroa, txat gunea edota nork bere blog propioa sortzeko egokiera izango du erabiltzaileak. Dena den, hitz egitea da garrantzikoena. Behinena. Eta, era berean, guneak Internet bidez mintzapraktika egiteko aukera ematen du. Hauxe da, zalantzarik gabe, ekarpenik berritzaileena. Horrela, tokian tokiko egitasmoetan parte hartzeko aukera ez duten lagunek, euskara erabiltzeko aparteko aukera izango dute teknologia berrien bidez. Nik www.mintzapraktika.org gunea bisitatzeko gonbita egiten diet mintzalagun, berbalagun eta solaskide guztiei.

euskararen Berripapera

EUSKALTEGIEN IKASTURTE BERRIAREN EKITALDI AKADEMIKOA

Joan den irailaren 25ean euskaltegien 2007/2008 ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa egin zen estreinakoz, Bilbon. Miren Azkarate Kultura sailburua, Patxi Baztarrika HPSko burua, Udala Euskaltegien sareko ordezkari Aitor Etxebarria, Euskaltegi Pribatu Homologatuen sareko ordezkari Mertxe Mujika eta Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalariak izan ziren ekitaldiko partaideak. Miren Azkarate Kultura sailburuak euskara ikasteko pausoa helduaroan eman dutenek gizarte-koheioari egindako ekarpena nabarmendu zuen, "gizarte hau osatzen duten bi hizkuntza-komunitateen artean zubi sendoak eraikitzen baitituzte". Azkarateren hitzetan, "euskaltegien azken 30 urteotako bilakaerak erakusten du aurrera goazela etengabe" eta aipamen berezia egin nahi izan zien euskaltegien hastapenetan sare hau guztia honaino irits dadin lan egin duten irakasle, hudeatzaile eta abarrei. Ekitaldiko mintzaldia Juan Carlos Moreno Cabrera Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedradunak eskaini zuen, "Del bilingüismo pasivo al bilingüismo activo" izenburupean.



DAVID CRYSTAL HIZKUNTZALARIA BILBON

Unesco Etxeak gonbidatuta, David Crystal hizkuntzalari galestarra Bilbon izan zen irailaren 24an. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza politikaren inguruko esperientziak partekatzeko aukera izan zuen hizkuntzalari ezagunarekin. Bestalde, HPSk pozik hartu du EHUK Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko Unesco Katedra sortu izana, hizkuntza-aniztasunarentzat oso positiboa baita. Azkenik, David Crystalen "Hizkuntzaren Iraultza" liburua euskaraz argitaratu izana ere txalotu du Sailburuordetzak. Izan ere, erreferentziako liburua da hizkuntza aniztasunaren gaietan eta gizartea hizkuntzen gaiteraren inguruan sentsibilizatzen tresna bikaina da.



EBALUAZIO-LANAK ETA LANKIDETZA-GUNEA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkariak Europako Kontseiluko Adituen Batzordekoekin bildu ziren Madrilan irailean, Hizkuntza Gutxituen Euroitunaren betetze-mailari buruzko Espainiako Estatuak bigarren txostenaren aztertzeko.

HPSk, besteak beste, "Elebide" Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzuaren berri ere eman zien Europako Kontseiluko adituei, baita zerbitzu horrek hizkuntza eskubideen alde egiten dituen jardueren nondik norra-koak azaldu ere.

Madrilera irten aurretik, ordea, HPSk aipatu txostenaren balorazioaren eta bere txostenaren berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuen Bilbon.

EAeri dagokionez, euskararen biziberritzeko prozesua "etengabe gorantz" doala eta aurrerakada horren "argazkia" Eusko Jaurlaritzaren txostenaren azaltzen dela nabarmendu zuen Patxi Baztarrika sailburuordeak. Horrez gain, Europako Kontseiluko emandako gomendioak aintzakotzat hartu eta betetzen saiatu direla azpimarratu zuen.



Espainiako Estatuak Administrazioa eta bere menpeko erakunde publikoak ordea, Europako Hizkuntzen Gutunean jasotakoa betetzetik urrun daude, sailburuordearen hitzetan. Hala, Estatuak berandu gabe zenbait neurri hartu beharko lituzkeela adierazi zuen. Bestalde, Frantziako Estatuak Eurogutuna berretsi eta indarrean jartzea euskararentzat oso mesedegarria izango litzatekeela azaldu zuen.

Azkenik, HPSko buruak Nafarroako Gobernuari proposamen bat luzatu zion, alegia, euskararen erabilera sustatzea helburu izango duen lankidetzaguneya sortu eta martxan jartzea.

Bestalde, Euskadiko, Kataluniako eta Galiziako gobernuak Estatuan eleaniztasuna sustatzeko komunikazio eta partaidetza marko egonkorra sortzea proposatu diote Herri Administrazioaren Ministerioari.

OHARRA

Laster paperezko bertsioa bazterrean utzi gabe, **Euskararen Berripapera** buletin elektronikoa gisa agertu eta zabalduko da. Gaur arte paperean jaso arren, aurrerantzean bertsio elektronikoa baino jaso nahi ez baduzu, bidaliezaguz, mesedez, mezu bat honako helbide honetara: berripapera@ej-gv.es. Bertan, jakinarazi zure izen-abizenak eta buletina jasotzeko helbide elektronikoa. Mila esker.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabalduko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística